

HH4	ARGAZKIA
Sarrera Nagusia Frontoira sarrera ematen duen atetik egingo da. Ikasle/familia eta markatutako lekuan zain egon beharko dira dagokion segurtasuna tartea errespetatuz. Eguerdian etxera bazkaltzera joaten diren ikasleentzako irteera eta sarrera aipatutako leku beretik egingo dira. <u>IRAILAK 7-13 BITARTEAN.</u> Aste honetan zehar, ikasleak 9:15-9:30 bitartean sartuko dira geletara. Haurra tutore batek jasoko du eraikinaren sarreran, eta bere gelara bideratuko du tenperatura hartu eta eskuak garbitu ondoren. • Horretarako garrantzitsua da aipatutako orduan egitea sarrera, ez arinago ez beranduago. • Sarrerak bost laguneko aforoa izango du. Besteek atean itxaron beharko dute atean dagoen irakasleak deitu arte. • Ikasleak lagunduta badatoz (familia, zaintzaile...), laguntzaile bakarraz etorriko dira. • Ikaslea orduz kanpo badator, idazkaritzatik sartuko da, tenperatura hartuz eta eskuak garbituz. Ikasleak eguerdian, 12:00 aterako dira klasetik. Ikaslea BAZKALTZEN GELDITZEN BADA irteera 14:30etan izango da, markatutako ibilbide berdinetik. Behin umea hartuta, ezin izango da ikastolan gelditu.	SARRERA-IRTEERA  ITXARON GUNEA  IKASGELETARA SARRERA-IRTEERA 